

# HERNANI kronika

2003 urtea  
Martxoak 28  
Ostirala  
Alea: 730  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Ezkerrean, pabiloi batzuk ia bukatuan eta beste batzuk atzeraxeago. Eskubian, bi poligonoak elkartuko dituen zubia egiten.

## 'Remy-Harinera' poligonoan 45 pabiloi dijoaz eta urte azkenerako egina egotea espero da

■ Floridak poligono berriak 5 hektarea izango ditu eta zoruaren hirutik bat pabiloiak dira ■ 'Remy-Harinera' eta 'Ibaiondo' poligonoa elkartuko dituen zubia ere egiten ari dira.

REMY-Harinera industria aldea erabat berritzen ari dira Floridan, Renfeko tren estazio ondoan. Guztira 50.000 m<sup>2</sup> inguruko poligonoa da, eta 45 pabiloi inguru joango dira. Ochoa Garraioak eta Cuesta Txatareria dira hor joango diren aktibitate ekonomikoetako bi eta gainerakoak oraindik zehazteko daude. Gutxi gora behera, Poligono osoaren hirutik bat izaten da pabiloi, eta gainekoak urbanizazioa izaten da.

rakoa urbanizazioa izaten da. rretarako bukatua beharko du.

### 230 m<sup>2</sup>-ko pabiloiak

Aipatutako bi enpresa horiez gain, Remy-Harinera 230 m<sup>2</sup>-koak izango dira gainerako 40 pabiloiak. Enpresarik gehienak, beraz, txikiak izango dira. Industrialdea gestio privatuko da eta arduradunek Kronikari esan diotenez urtea bukatzerako pabiloiak eginak egongo dira seguruenera, eta urbanizazioak ere ingurutsu ho-

nahiko aurreratua dago, baina, ez dute zehaztu noizko bukatuko duten.

### Industrigune gehiago

Remy-Harinera oz gain, industriagune gehiago ere ari dira egiten Hernanin. Lurzorua botata Akarregikoa dago, Ibaiondo poligonotik bidez bestekaldekoa, eta nahiko aurreratua Epelakoa, bestea beste Oronako ampliazioa ekarriko duena. □

## Dobera Euskara Elkarteak 2002ko balantzea eta 2003ko egitasmoa aurkeztuko ditu gaur, batzarrean

■ Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Doberako lokal berrian.

DOBERA Euskara Elkarteak urteko batzarra egingo du gaur. Hiru puntu nagusi izango ditu batzarrak: 2002ko egitasmoaren balantzea, 2003rako egitasmoa, eta zuzendaritza aukeraketa. Batzarra Doberako lokal berrian da, Larramendi 11, arratsaldeko 19:00etan. □



Dobera Euskara Elkarteko batzarra iaz.

## ELIZA EBANJELIKOA

### Lau hitzaldi gaur, droga-menpekotasunaren prebentzio jardunaldian

ELIZA Ebangelikoak droga-menpekotasunaren prebentzio jardunaldiak antolatu ditu, Ongintzako prebentzio sailarekin batean. Gaur lau hitzaldi izango dira: Txus Congilek, Omar Rusellek, Yolanda Sotok eta Antonio Chimenok hitz egingo dute. Gaur 19:30etatik 21:30etara, Biterin. Biher ere jardunaldiak segiko dute 10:00etatik 13:00etara. Jardunaldiak irekiak dira.

## ETXERAT ELKARTEA

### Enkartelada gaur

HILEROKO enkartelada deitu du Etxerat Elkarteak gaur, *Guztio artean euskal presoak Euskal Herrira* leharekin. Enkartelada Gudarien plazatik abiatuko da 20:00etan. Etxeratek dei egin die hernaniar guztiei enkartaladan parte hartzen. Bestalde, biher arratsaldean, manifestazio nazionala egingo da Iruñan, Bautista Barandaila libre uztea eskatzeko eta Hernaniko Etxeratek manifestaziora joateko dei egin du. Autobus txartelak Garinen. □

## BILDU HERNANI

### Hauteskundeetako programa osatzeko bilera

BILDU Hernani plataformak bilera irekia du gaur, datozten Udal hauteskundeetarako programa osatzeko. Bilera AEK-ko lokaletan da, arratsaldeko 19:00etan. □

## Kultur jardunaldiak

HERNANI Institutuak eta bigarren hezkuntzako zentroek kultur jardunaldiak antolatu dituzte gaurko. Goizean argazkigintza txapelketa, txalaparta, xakea, tribiala, aerobic, eta abar izango dira Institutuan. Eguerdian ikastetxeetako langileek baziaria dute eta arratsaldeko 18:30etan *Ni Mohamed* antzerkia dago Sandiusterrin. □

**AMEGAR**  
etxe tresnak  
altzariak

Elektrogailuak  
TB - Bideoak -  
HI-FI - Opariak

Txirrita 15 Izpizua 27

Tel 943 551125 - Faxa 943 551603

**Jatetxea**

Venta Berri  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxita.

**ITXASPE**  
ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 HERNANI

**GARAYAR AUTOBUSAK**

**AUTOBUS ZERBITZUA**  
**LINEA ERREGULARRAK**  
Hernani - Aiete- Donostia - Aiete- Hernani  
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-  
Urnieta-Andoain

**ZERBITZU DISKREZIONALAK**  
**(ESKOLARRAK)**

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662  
Faxa 943 331 208 - e-maila: [mgarayar@facilnet.es](mailto:mgarayar@facilnet.es)  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

**ANTZERKI ZIKLOA BITERIN**



'Ai Ama' obrako eszenetako bat atzo, Biterin. Ezkerretan, Miren Gojenola Hernanin bizi den aktorea.

## Markeliñeren 'Punta Rabo' gaur, Zikloa bukatzeko

■ Biteri ia bete egin da 'Metxa' eta 'Ai ama' ikusteko.

PUNTO Rabo obrarekin bukatuko da Udaberriko Antzerki Zikloa. Markeliñen taldeak existentziari buruzko galderak planteatzen dituen lana antzeztuko du gaur Biterin: "Jerrakia eklesiastikoek linbo eta purgatorio kontzeptuak dese-gin dituzten honetan, zer gelditzen zaigu existentziaren

atzean? Zer pasako zaie gure arimei, zeinek hartuko ditu edo non geldituko dira? Edo orain ez al dugu infernuko suaren berorik ere izango? Antzerkia 20:00etan hasiko da.

Antzerki Zikloak orain artean erantzun ona izan du. asteazkenean Biteri ia erabat bete zen Metxa ikusteko, eta

atzo ere jende dezente bildu zen Hika taldearen *Ai Ama* obran.

Antzerki Zikloa gaur bukatuko bada ere, gaztetxoek izango dute beste antzerki obra bat ikusteko aukera, larunbat honetan zortzi. La Baldufa taldeak "Munchausengo Baroiaren abenturak" kontatuko ditu. □

## ■ IGERIKETA

## Hernaniko igerilaria Euskadiko Txapelketan

■ Olatz Altuna, Oihane Sanz, Iara Jimenez, Eider Estibariz eta Anne Altuna arituko dira igeri ■ Txapelketa igande honetan da, Iruñan, Anaitasuna kirolegian.

HERRIKO bost igerilarik Euskadiko txapelketa absolutua jokatuko dute asteburu honetan. Igerilari herniarrek 13 probetan hartuko dute parte eta ahal duten puntu gehiena ateratzera joango dira, Jon Murua entrenatzailearen esanetan. Hernaniko taldeak hurrengo urtean Euskadiko Kopan aterrateko aukera izatea nahi du eta helburua da horretarako puntuazioa lortzea.

Olatz Altuna izango da proba gehiena egingo dituena. Altuna 4 probatan aterako da: 50 eta 100 m krol, 100 m estilo eta 50 m tximeleta; Oihane Sanz, 50 eta 100 m krolean eta 50 m bizkar estiloan aterako da; Iara Jimenez, 50 eta 100 m bularrean; Eider Estibariz 4x50 m krolean eta Anne Altuna 4x50 m krol eta 4x50 m estiloan arituko da igeri.



Hernaniko igerilaria Hernaniko torneoan.

**Asteburuan herriko igerilariek marka bikainak**  
Aurreko asteburuan izan zen Udaberriko lehenengo jardunaldia eta herriko igerilariek marka bikainak lortu dituzte. 4x100 m lau estiloetan, Hernaniko neskak aurrena gelditu

ziren. Olatz Altunak 27''8 egin zuen 50 m krol proban eta Oihane Sanzek 2 segundo gehiago. Ioritz Aldabek 1'15" egin zuen bizkar proban eta Mañel Aizpuruak 2'31" 200 m lau estiloetan. Hurrengo jardunaldia apirilaren 5ean. □

## ESKOLA KIROLA

## ASTEBURUKO PARTIDUAK

Pelota	Taldeak	N o n	N o i z	Futbolsala	Taldeak	N o n	N o i z
Gipuzkoako finalak	Kiroldegia	B har09 30		Infantilak	Langile-Salsesianak	Kiroldegia	B har11 45
Putbola				Saskibaloiak			
A lebin neskak	Langile-Umm ea	Zubipe	B har11 00	Benjam inak	Langile C-Umm ea	Kiroldegia	B har09 15
A lebin m utilak	Umm ea A -Langile B	Zubipe	B har09 00	Benjam inak	Elizatxo A -Langile B	Kiroldegia	B har09 15
A lebin m utilak	Elizatxo A -Elizatxo B	Zubipe	B har09 00	Benjam inak	Langile A -Elizatxo B	Kiroldegia	B har10 15
A lebin m utilak	Umm ea B -Im aculada	Zubipe	B har10 00	Benjam inak	Elizatxo B -Umm ea	Kiroldegia	B har10 15
A lebin m utilak	Langile C -Langile A	Zubipe	B har10 00	Benjam inak	Langile B -Elizatxo A	Kiroldegia	B har11 15
				Benjam inak	Langile A -Im aculada	Kiroldegia	B har11 45

## ■ HITZ BITAN

### ✓ BERRIAK ELKARTEA

**Umeentzat 'Jokulandia', Plaza Berrian.** Jokuak izango dira gaur Plaza Berrian umeentzat, Berriak merkatari eta ostalari elkartea antolatuta: material birziklatuz egindako 30 bat joku, ludoteka erraldoia, joku tradizionalak eta abar. Batez ere imajinazioa eta intuizio haundia behar duten jokuak dira Berriak Elkartea esan duenez. Gaur arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, Plaza Berrian.

### ✓ TXIRRINDULARITZA

**Gazteentzako txirrindulari proba.** Kimu eta haur mailako txirrindulari proba dago bihar Hernanin. Denboraldia martxoaren 8an hasi zuten eta bihar izango dute laugarren lasterketa. Irteera arratsaldeko 16:30etan izango da Ibarluze Poligonotik. Orain artean Hondarribian, Zarautzen eta Donostian izan dituzte lasterketak txirrindulari gazteek. Hernaniko txirrindulari gazteak ere proba horietan parte hartu dute eta bihar herrian dena ematen saiatuko dira.

### ✓ ZINEA BITERIN

**'Un padre de cuidado' eta 'Los lunes al sol'.** Larunbat eta igandean bi pelikula botako dituzte Biteri kultur etxeen. Umeentzata *Un padre de cuidado*, larunbat eta igandean 17:00etan; eta helduentzat *Los lunes al sol* larunbatean 19:30etan eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. Gaur ez dago zinerik Biterin, Antzerki astea dela eta *Punta Rabo* antzezlana baitago.

### ✓ MENDIRIZ MENDI

**Urbasara irteera.** Mendiriz Mendik Urbasara irteera antolatu du, apirilaren 6rako. Mendi buelta da San Roman-Ballo- (1197 metro)-Legunbe (1127 metro)-Biotzia kanpina. Irteera goizeko 08:00etan da, Atsegidegitik. Izen ematea apirilaren 3a baino lehen egin behar da, Mendiriz mendin. Prezia: 8 euro baziak eta 11 euro baziak ez direnek.

**Gaztetxoak ere Urbasara.** Gaztetxoentzako irteera apirilaren 13an da, Urbasa aldera hori ere. Urbasako portutik Bargagainera igoko dira (1151 metro). Irteera goizeko 08:00etan da, Atsegidegitik. Izen ematea apirilaren 11 baino lehen egin behar da, Mendiriz Mendiko lokalean. Prezia, 2 euro gaztetxoek eta 4 euro helduek.

### ✓ PALA TXAPELKETA

**Partiduak gaur, bihar eta etzi, kirolegian.** Hernaniko pala txapelketako partiduak jokatuko dira gaur, bihar eta etzi. Gaur arratsaldeko 18:45etan, Valero-Galarza/Oiarzabal-Gil. Biher 16:30etan, Imaz-Gaizka-/Lujanbio-Ortega. Igandean 10:30etan, Legarreta-Agirre-/Inaxio-Xapo; 11:30etan, Oiartzabal-Gil/Egaña-Mitxelena; eta 12:30etan, Ibai-Iñaki/Axier Juan Mari. Bestalde, azken jardunaldian izandako emaitzak dira: Ibai-Iñaki 30/Olazabal-Olara 17; Estefano-Ezeiza 30/Lujanbio-Ortega 24; eta Valero-Galarza 22/Arluziaga-Esteban 30. □

## ZERBITZUAK

### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### ■ FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Kale Nagusia 14  
■ 943 554892
- Gauet: Gomez Kale Nagusia 14  
■ 943 554892

## IRAGARKI MERKEAK

Garajea salgai Urbieta kalean: 943 55 20 81

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: 943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

Pisu konpartitu baten bila nabil. Koldo. Deitu: 943 55 49 64

Desbrozadura bat daukat saltzeko. Bigarren eskukoa HONDA UM 536. Interesatuek deitu: 943 55 54 36

Pisua daukat salgai Karabelen. Bi logela, sukaldea, sala eta komona ditu. Interesatuek deitu: 943 55 34 84

**JANTZI DENDA**

**AMBOTO**

Nagusia 44 - HERNANI- Tel.: 943 55 23 40

AMBOTO  
Udaberriko erro-pak zure neurrira  
jartzen ditugu.  
Hemen gaitzu.